

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregorio Madariaga Lamariano

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Antzuolako Herriko Plazan
jaio zen aita-ama
antzuolarrengandik. Gerra
hasi zenean, aitona arotza
herriko alkatea zen, eta
familia osoak ihes egin behar
izan zuen. Harrezkero, Euskal
Herrian zehar eta Frantzia
sakabanatuta bizi izan dira
famiako kideak. Gregorio
famiako emakumeekin eta
beste ume batzuekin
Frantziako Lot
departamendura eraman
zuten; izeba bat ezkondu eta
bertan bizitzen geratu zen.
Erbestetik bueltan, umeak
elgorriaz gaixotu eta
berrogeialdian jarri zituzten
Iruneko mugan. Antzuolara
itzuli eta maristen eskolan
ibili zen zazpi urtetik
hamalaura arte. Gero
Bergarako eskola
profesionalean ikasi zuen.
Azpeitian bi urtez egon zen
harategi batean ikasten, gero
Antzuolako osaba
harakinarekin lan egiteko.
Garai hartan ganadua
erosteko tratuak nola izaten
ziren, eta gero nola hiltzen
ziren, eta harategiko beste
hamaika kontu azaltzen ditu.
Harategia utzi eta arrandegia
jarri zuen, eta hemen ere
azaltzen du non eta nola erosi
eta saltzen zuten arraina, bai
dendan eta bai kalean.
Enkanteak, bisigu, zapo,
angula... Antzuolako [Josefina](#)
[Lete](#)rekin ezkondu zen eta sei
seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ANT-088

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-17
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Aitita arotz abila

- **Erref:** ANT-088/002
- **Iraupena:** 0:16:06. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bere aitita arotza zen eta elizako hainbat gauza berak egindakoak dira: prozesioko Jesukristoren kaja, santuen andak... Gregorio gaztea zela bere aitita Erromara joan zen eta San Pedro plazako krokis bat egina zuen. Herrian lan asko egindakoa zen.

2. Gerran aitita alkatea zenez, herritik alde egin behar

- **Erref:** ANT-088/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Beraien aitita herriko alkatea izan zen. PNVkoa zenez, Gerra Zibilean familia guztiak Antzuolatik alde egin behar izan zuen. Sei hilabetez 40 bat lagun Bermeon egon ziren. Nazionalak Bermeo hartu eta Bilbon egon ziren beste hilabetez. Bermeon eta Bilbon, bietan, Ertzilla kalean egon ziren. Artxanda hartu zutenean, Santander aldera joan ziren. Bidean, Limpiasen (Ladero ondoan) egon ziren bizpahiru egun. Gogoan du Jose Antonio Agirre lehendakaria Laderoko hondartzan jaitsi zela hegazkinez. Santanderren andreak, umeak eta gizonezko batzuk itsasontzian sartu eta Frantziara joan ziren.

3. Frantziako bizimodua eta Antzuolara itzulera

- **Erref:** ANT-088/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:07:17. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gerra Zibilean, aitita Antzuolako alkatea zenez, herritik ihes egin behar izan zuten. Batetik bestera ibili ostean, Santanderren andreak, umeak eta

gizonezko batzuk itsasontzian sartu eta Frantziara joan ziren. Lot departamenduan egon ziren bizitzten, aitita, amama, beraien lau alaba eta hainbat ume, Gregori tartean. Bere izeko zaharrena frantziar batekin ezkondu zen bertan. Denbora nahikotxo egon ziren bertan. Amama lehenago bueltatu zen etxera. Gero beraiek bueltan zetoze, elgorriak jota Irungo gurutze gorrian egon ziren berrogeialdian Antzuolara heldu aurretik. Aitita beranduago etorri zen.

4. Aititari zuen guztia errexisatu zioten

- **Erref:** ANT-088/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Aitita herriko alkatea zenez, gerratean herritik ihes egin behar izan zuten. Bueltatzerakoan, aititari hainbat ondasun errexisatu zizkieten: makinak, tailerra, etxea, autoa... Etxea hutsik zegoenez, don Leandro abadea bertan egon zen bizpahiru urtez.

5. Ama ezin Antzuolara bueltatu

- **Erref:** ANT-088/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:11:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian aitita Antzuolako alkatea zen eta familiako kideak herritik bota zituzten. Bere ama ere bota zutenez, erbestetik bueltan ezin izan zuen herrira sartu eta Zeraingo baserri batean egon zen. Beraiek, umeak, osaba-izekoekin egon ziren bitarte horretan.

6. Ama bisitatzeko salbokonduktoa falangean eskatu behar

- **Erref:** ANT-088/008
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:11:59. **Bukatu:** 00:13:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra zela-eta, amak ezin izan zuen herrira sartu eta zeraingo baserri batean egon zen bizitzten. Ama bisitatzera joateko aitak salbokonduktoa behar zuen. Falangera joan behar zen eskatzera.

7. Osabak frontean eta kartzelan

- **Erref:** ANT-088/010
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Hainbat osaba izan zituen frontean eta ostean kartzelan. Osaba bat bi aldiz kondenatu zuten heriotza zigorrera eta lau kartzela ezagutu zituen. Gainerako osabak Ondarretako kartzelan egon ziren.

8. "Flechas y pelayos" eta "margaritas"

- **Erref:** ANT-088/013
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:16:29. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

Antzuolako maristen ikastetxean dena zen erdaraz. Euskaraz egiten zuenari eraztuna jartzen zioten eta aste bukaeran jantzita zuenak zigorra zuen. Bandera jartzerakoan, eskua altxatuta abestu behar izaten zuten. "Flechas y pelayos"ekin formazioa eta instrukzioa jasotzen zuten, derrigorra zen mutikoentzat. Emakumeak "margaritas" ziren eta "sección femenina" zuten. Margariten burua Primo de Riveraren arreba zen eta Gregoriok gogoan du Deban aterpetxe bat inauguratzera etorri zela eta Oñatiko dantzariak egin ziotela ongi etorria.

9. Harakina matarife lanetan

- **Erref:** ANT-088/015
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bergarako eskola profesionala bukatu ostean soldaduskara joan zen eta gero osabaren harategian hasi zen beharrean. Harategiko okela Antzuolako baserrietakoa zen. Zuzenean joaten ziren baserrira, txahala ikusi, tratua egin eta harakinak hiltzen zuen hiltegian, ez zegoen matariferik. Txerri hiltzetan ere harakinak aritzen ziren. Txerria ilbeheran hiltzen da. Azpeitiko harategi batean egon zen bi urtez ikasten eta bertan ikasi zuen matarife lana.

10. Azpeitiko San Inazioetako zezenak zatitu

- **Erref:** ANT-088/017
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:25:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Osabaren harategian lanean hasi aurretik, bi urtez Azpeitiko harategi batean egon zen ofizioa ikasten. San Inazioetako zezenak zezen-plazatik irtendakoan zatitu egiten zituzten herrian jateko eta eginbehar horretan ere aritu zen.

11. Goizean goizetik jaiki harategirako

- **Erref:** ANT-088/020
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Azpeitian harakin lanak ikasten zebilela, goizean goizetik zaltaia (ukuilua) gobernatu behar izaten zuten. Dena hiltzen zuten etxean: bildotsak, arkumeak... Astean 10 bat hiltzen zituzten, astearen arabera. Okel asko saltzen zen Azpeitian zein Antzuolan. Astean txekor bat eta erdi saltzen zuten Antzuolan.</p>

12. Astean txerri bat edo pare bat hil eta saldu

- **Erref:** ANT-088/021
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:29:58. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Astean txerri bat edo bi hiltzen zuten eta gehiena txorizotarako izaten zen. Eibarerra txorizo eta odolki asko bidaltzen zituzten.

13. Txerriak eta ganaduak jaten duenaren zapore izaten du

- **Erref:** ANT-088/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:33:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Txerriari dena aprobetxatzen zaio. Kostaldean txerri batzuei arraina ematen zien eta gustoa desberdina da. Arrasateko batek arrandegia zuen eta arraineekin hazten zituen txerriak. Antzuolan aillorba belarra jaten zuen ganaduak eta belar zaporea izaten zuen gero.</p>

14. II. Mundu Gerra sasoiaren arrain ugari

- **Erref:** ANT-088/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:47. **Bukatu:** 00:35:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

Laburpena:

<p>Harategia zutela arrandegia ere jarri zuten. Ondarroatik ekartzen zuen arraina, arrain asko egoten zen sasoi hartan. II. Mundu Gerra inguruan arraina asko ugaltu omen zen; izan ere, beste herrialdeetako askoren ontziak ez zeuden arrantzan eta euskaldunak hori aprobetxatu zuten. Zapoak Kataluniara bidaltzen zen, hemen ez zegoen jateko ohiturarik.</p>

15. Egunean 20.000 kilo bisigu portuetan

- **Erref:** ANT-088/026
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:27. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

Laburpena:

Gregoriok arrandegian bisigu asko saltzen zuen. Sasoi hartan, Bermeo, Lekeitio, Mutriku eta Hondarribiko portuetan egun batzuetan amuko 20.000 kilo bisigu sartzen ziren. Olagarroa, osteria, ez zen estimatzen. Palomita arraina (papardoa) gaur egun ez da harrapatzen. Gaur eguneko bisigua "pantxito" dela dio, pisu gutxikoa.

16. Gaez joan behar portura arraina erostera

- **Erref:** ANT-088/027
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:38:45. **Bukatu:** 00:40:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arrandegia zuenean, arrain tratua egiteko askotan gaez joan behar izaten zuen portura itsasontzikoekin egiteko zuzeneko tratua. Baxurako arraina enkantean saltzen da.

17. Antzuolako ikurrinak Frantziara eraman zituen izekok

- **Erref:** ANT-088/038
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:52:56. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Bere aman ahizpa bat Antzuolako PNVko emakumeen presidentea zen. Gerran ihesi zihoazela ikurrinak eraman zituen Frantziara.

18. Santanderretik Frantziarako bidaia

- **Erref:** ANT-088/039
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:53:55. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, Santanderretik Frantziara eraman zien itsasontzia Txinako merkataritza-ontzi bat izan zen. Bidean Almirante Cerverak gelditu zien, baina errefuxiatuak zirenez aurrera joaten utzi zien.

19. Ganaduaren eta txerriaren tasazioa

- **Erref:** ANT-088/041
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:56:07. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Ganaduaren tratua pisatu barik egiten zuten, begiz kalkulatzeko zuten balioa. Txerriaren pisua erosi eta hurrengo egunekoak balio du; izan ere, jaten emanez gero gehiago pisatzen du eta gau bat baraurik pasatu behar du. Elkarrizketa garaian, dena kanalean egiten zen, zatituta; Frantzian, oster, bizirik saltzen ziren.

20. 100 kilo angula saldu zituen

- **Erref:** ANT-088/044
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:00:46. **Bukatu:** 01:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak

Laburpena:

San Jose batzuetarako 100 kilo angula ekarri zituen Frantziatik Gregoriok bere arrandegira. Pasaiara joaten zen angula horren bila. Frantziatik ekarritako angula hori kiloa 100 pezetatan erosi eta 125 pezetatan saldu zuen. Angula beltza eta angula zuria. Haztegian angula belztu egiten da ez dagoelako bere ingurune naturalean.

21. Gurdiarekin arraina saltzen

- **Erref:** ANT-088/045
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:02:48. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Berak bere aititari entzunda dio bera gaztea zela, Antzuolan bertan angula asko zegoela, Bergaratik etortzen baitziren gurdia hartuta arraina saltzera. Bera ere ibili izan da kalean etxerik etxe emaztearekin batera arraina saltzen. Baserrietara ez ziren joaten. Baserritarrak eurak etortzen ziren kalera euren jeneroa saltzera eta orduan, bide batez, erosten zuten arraina.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com